

HIZKUNTZ INDARBERRITZEA ETA POLITIKA ERRADIKALAK



Artikulu honetan, Gerald Rochek esango digu hizkuntzen indarberritzea prozesu edo ekintza erradikala dela, *statu quo* globalari erronka egiten diolako. Kontua ez da hizkuntzak indarberritu ahal izateko munduan azaleko aldaketak egitea, baizik eta mundu berria sortzea. Politika erradikalen hainbat elementu aztertu ditu, besteak beste, ekintza politiko zuzena. Hizkuntza zapalkuntza beste zapalkuntza mota batzuk ikertzen diren antzera aztertzea proposatzen du.

Gerald Roche La Trobe Unibertsitateko (Melbourne, Australia) irakaslea da, antropologoa. *Language on the move* (hizkuntza mugimenduan) webgunean idatzi berri du ondoko lerroetara euskaraz ekarri dugun artikulu. Artikuluak lotura asko ditu, eta haiek interneteko bertsioan jasoko ditugu.

 **GERALD ROCHE /**
LANGUAGE ON THE MOVE WEBGUNEA

Will Indigenous Languages Survive? (Biziraungo dute hizkuntza indigenek?) 2005. urteko artikulu, hizkuntzen indarberritzea "sakonki politikotzat" hartu zuen Michael Walsh-ek. Euskararen mugimendua aztergai duen ikerlanean, hizkuntzen indarberritzea "politikatik ezin dela banandu" adierazi du Jacquelin Urla-k.

Baina, hizkuntzen indarberritzea politikoa bada, zein politika mota da?

Ruth Kinna eta Uri Gordon-en *Routledge Handbook of Radical Politics* (Politika Erradikalen Routledge Gidaliburua) oinarri hartuta, hizkuntzen indarberritzea politika erradikal moduan irudikatu nahi dut artikulu honetan.

Hasteko, zer dira politika erradikalak?

Kontzeptuaren hainbat definizio ematen dituzte erradikalek. Nik ulertzen dudana moduan, erradikaltasuna kon-

trakotasunean errotzen da eta oinarrien eraldaketa du helburu -gainazaleko elementuena baino-, hainbat menderatze moduren abolizioaren bitartez. Zentzu horretan, hizkuntz indarberritzea erradikala da, *statu quo* globalari erronka egiten baitio: hizkuntzak zapaltzeko sistema, gaur egun, munduko hizkuntzen erdia behintzat ezabatzen ari da.

Hizkuntzen indarberritzeak ez du egungo mundua aldatu nahi, berria sortu baizik, non botere egiturek hizkuntza guztiak loratzea ahalbidetuko duten. Horrek eskatzen du gaur egungo gizarte eta politika planak errotik eraldatzea. Izan ere, plan horiek herri indigenak desagerraraztera bideratuta daude, baita arraza, etnia, erlijio eta leinuaren araberrak taldeak etengabe menpean izatera ere.

Eraldaketa hori ekintza politiko zuzenen bitartez lortu nahi dute politika erradikalek. Kanpainak, lobby lanak, kon-



GERALD ROCHE: "Nik idatzi dut nola hizkuntza zapalkuntza iker daitekeen beste zapalkuntza mota batzuk ikertzen diren antzera, adibidez, arraza, nazio, etnia eta erlijioari loturiko zapalkuntzak bezala".

tzientzia-hartzeak eta bestelako ekintza politiko aurrerakoiak erradikaltasunaren baliabideen kutxan dauden arren, garrantzitsuagoak dira desobedientzia zibila, etenaldiak, protesta, hacktibismoa, eta beste.

Hizkuntzak indarberritzeko mugimenduen aurrekariak izan dira, beti, ekintza zuzenez osaturiko jarduerak. Mugimendu horiek eskubide eta askatasun gehiago duten eta menperakuntzak behera egin duen testuinguruetan baino ez dira izaten, eta testuinguru hori borroka eginda lortzen da.

Australia, Amerikako Estatu Batuak, Kanada eta Zeelanda Berria kolonizatu-tako herrialdeak horren eredu garbiak dira: borroken eta bestelako ekintza zuzenen bitartez lorturiko eskubide zibilak ziurtatu ondoren sortu dira indarberritze mugimendu handiagoak. Estatuek ez zituzten gogo onez eman eskubideok; herri indigenen berariazko ekintza zuzen eta koordinatuei esker eskuratu zi-

ren, tokian toki borrokan eta globalki sareturik aldi berean.

Badago hizkuntzak indarberritzearen eta ekintza zuzenen arteko bestelako lotura bat. Onartzen badugu gaur egungo

Mendekotasunaren
kritikarik gabeko
gorespenek, Daniel G.
Solorzano eta Dolores
Delgado Bernal-en
arabera, "erresistentzia
konformista" dakarte

gizarte eta politika planen ondorioz hizkuntza batzuk desagerrarazten direla, hizkuntza horiek erabiltzea zuzeneko

ekintza modu bat da. Jenny Davis antropologo eta chickasaw hizkuntzaren aldeko ekintzailearen arabera, hizkuntzen indarberritzea "erresistentzia-, bizirautete- eta arnasberritzen duen erresistentzia-ekintza" da.

Ekintza zuzenez gain, hizkuntzen indarberritzeak politika erradikalen beste elementu bat erakusten du: prefigurazioa. Prefigurazioak, edo aurrez irudikatzeko, esan nahi du saiakerak egingo direla justizia ereduak sortzeko, egiturazko eraldaketa lortu bitartean. Hau da, eraiki nahi dugun mundua prefiguratu, aurreikusi. Beraz, hizkuntzen indarberritzeak prefigurazioan dihardu, eraldaketa globala gertatu baino lehen, munduaren eta komunitateen hizkuntzak berrezartzen ditu, eta mundua nolakoa izan litekeen, eta izan behar lukeen erakusten du.

Erradikaltasunak badu, ekintza zuzenez eta prefigurazioaz gain, beste alde garrantzitsu bat: kritika. Menderatze sistemak izendatzen, deskribatzen eta

azaleratzen ditu, eta horien eragileak eta kalteak azpimarratzen ditu. Ondorioz, politika erradikalak 'anti' izan ohi dira: antifaxista, antirrazista, antikapitalista, antimilitarista, antikoloniala, anti-inperialista eta antipatriarkala.

Orain arte, mota horretako ikuspegi kritikoak zeregin mugatua besterik ez du izan hizkuntzen indarberritzean. Hizkuntzen indarberritzearen aldeko diskurtsoak –irudimen orokorrean bereziki– Jane Hill-ek 'baliozkotze hiperboliko' deituriko tropoen mende egon dira; hau da, hizkuntzen gehiegizko gorespenen pilaketa. Mendekotasunaren kritikarik gabeko gorespenek, Daniel G. Solorzano eta Dolores Delgado Bernal-en arabera, 'erresistentzia konformista' dakarte. Justizia sozialari tiritaren moduko konponbideak besterik ez dizkio eskaintzen, eta arazo sistemiko sakonagoak ez ditu jorratzen.

Hala ere, ondo funtsatua den ikuspegi kritikoa agertzen ari da hizkuntzen indarberritzean. Esaterako, Alice Taff eta bere lankideek 'hizkuntza zapalkuntza' terminoa darabilte ondokoa deskribatzeko: "Hizkuntza galtzera behartzea koertzio fisiko, mental, sozial eta espirituala baliatuta". Nik idatzi dut nola hizkuntza zapalkuntza iker daitekeen beste zapalkuntza mota batzuk ikertzen diren antzera, adibidez, arraza, nazio, etnia eta erlijioari loturiko zapalkuntzak bezala. Indigena akademikoak, hala nola Wesley Leonard, Jenny Davis eta Michelle M. Jacob, hizkuntzen indarberritzea kolonialismoaren kritikari lotzen ari dira gero eta gehiago. Feargal Mac Ionnrachtaigh-ek, egungo Ipar Irlandako preso politikoen hizkuntza politika erradikalez egindako azterketan, horien hizkuntzaren indarberritze lanak kolonialismoaren eta globalizazio neo-kolonialistaren aurkako borrokarekin lotzen ditu. Australian, Kris Eira-ren arabera, "hizkuntza galtzen da pertsona talde batek beste talde bat mende hartzen duenean". Ondorioz, hizkuntzen erabilerak deskolonizatzea aldarrikatu du Kris Eirak, Tonya Stebbins eta Vicki Couzens-ekin batera.

Kolonialismoaren kritikan arreta ipintzea eta deskolonizazio proiektu baimatzea politikak erradikalen munitate gero eta gehiago, politika erradikalak intersektionalak izan daitezkeen nahi baita. Horrek esan nahi du egitasmo erradikalek askotariko zapalkuntza eta menderatze formek elkar nola eragiten duten aztertzen dutela, eta, hala nola, arraza-kapitalismoaz, ingurumen-kapitalismoaz eta deskolonizazio-deskarbonizazio loturaz eztabaidatzen da. Gainera, egitasmo erradikalak saiatzeko zuzentzen, batzuentzat justizia bila ari diren bitartean beste inorengan bigarabekeriak ez eragiten, adibidez, zapalketaren aurkako politiken bidez.

Hizkuntzak indarberritzeko mugimenduak eskubide eta askatasun gehiago duten eta menperakuntzak behera egin duen testuinguruetan baino ez dira izaten, eta testuinguru hori borroka eginda lortzen da

Politika erradikalek intersektionalak izan nahi dutenez, elkartasuna bereziki garrantzitsua zaie: mugimendu barruan, mugimenduen bidez, eta mugimendu artean. Bere izaera komunitarioa dela-eta, lehenengo elkartasun mota oso garrantzitsua da hizkuntzen indarberritzean. Elkartasuna adostutako helburuen ezarpen eta koordinatutako ekintza gisa irudikatzen badugu, badirudi hizkuntzen indarberritzean maiz gertatzen diren gatazkak kudeatzeko modu onuragarriagoa eskaintzen duela, baldin eta 'argitze ideologikoa' lortzeko

interesekin alderatzen badugu.

Mugimenduen bidezko elkartasunak mugimendu batetik kanpo daudenean mugimendu horrekiko izan ditzaketen askotariko jarrerak adierazten ditu: aliatu, abokatu, kide edo konplize. Nik, adibidez, hizkuntzen indarberritzean jarduten duen norbanakotzat baino, hizkuntza justiziaren aldeko aliatutzat dut nire burua. Nire iritziz, aliatuok egin dezakegun gauza bat da hizkuntzen indarberritzea lagunduko duten espazio seguruak sortzea. Ruth A. Deller-ek gidaliburuan azaltzen duen moduan, espazio seguruak "bartzertutako taldeetako kideek elkartzeko erabili ditzaketen espazioak dira, non hitz egiteko eta baliabideak elkarbanatzeko aukera izango duten", fisikoki edo birtualki. Berdin dio zein elkartasun motari heltzen diogun, ezinbestekoa da elkartasuna nola dekolonizatu hausnartzea; nola saihestu hizkuntza zapalkuntza sustatzen duten botere eta erlazio egiturak errepikatzea.

Hirugarren elkartasun mota, mugimenduen artekoa, ikuspegi kritikoz aztertzeak, *Routledge* gidaliburuaren ahalgune bat agerian uzten du. Bizikletaz ari den politika erradikalei buruzko kapituluaren eta musika zerk egiten duen erradikal aztertzen duen beste batean, hizkuntzaz aipamenen bat baino ez dute egiten. Intersektionalitatea eta dekolonizazioa ardatz dituen liburu batean hizkuntzaren inguruko ia eztabaidarik ez egoteak esan nahi du, politika erradikalak zer diren jakiteko ikuspegi barneratzaileagoak eta hedatzaileagoak behar ditugula. Akademiko eta ekintzaile erradikalekin elkarlana areagotzeko aukera ematen die horrek hizkuntzen aldeko ekintzaile, aliatu eta abokatuei. Hizkuntza, menderatzeko eremu gisa eta emantzipaziorako bide bezala aztertu ezean, zapalkuntzaren analisi oro osatugabea izango dela frogatu behar dugu. Era berean, politika erradikalen filosofia eta jardunei es-tuago helduz gero asko daukagu irabazteko. ●

BABESLETTA:



Hondarribia
euskaraz bizi

